



ITZIAR LAKA MUGARZA

Hizkuntzalaria

Itziar Laka Mugarza (Bilbo, 1962). EHU Un Euskal Filologian lizentziatu ondoren, Hizkuntzalaritzan doktoratu zen, Massachusettseko Teknologia Institutuan (MIT). Gaur egun, Hizkuntzalaritzako katedraduna da EHUUn, eta Jakiundeak kidea. ARG.: IÑIGO IBAÑEZ.

“Gure zain ditugu orain imajinatu ezin ditugun gauzak”

Itziar Lakaren hitzetan, ikerketak berezkoa du ez jakitea zer aurkituko den. Horrenbestez, aitortu du ibilbidea hasi zuenetik hamaika gauzak harritu dutela. Hala ere, mugari batzuk aukeratu ditu. Ezinezkoa egin zaio, ordea, etorkizunean zer gertatuko den edo zer ikusi nahiko lukeen esatea. Izan ere, uste osoa du orain imajinatu ezin direnak gertatuko direla hizkuntzalaritzaren arloan, epe labur edo ertainean.

ANA GALARRAGA AIESTARAN
Elhuyar Zientzia

Zerk harritu, asaldatu edo txunditu zaitu gehien, lanean hasi zinenetik?

Ikerketak berezkoa du ez jakitea zer aurkituko duzun. Hortaz, hizkuntzalaritzan hasi nintzenetik hona, txunditu nauten hamaika gauza gertatu dira, hamaika. Bat aukeratzea ezinezkoa zait. Hala ere, badaude mugari batzuk, eta horietako bat da ni hizkuntzalari bihurtzeko arrazoia, egiazki filologia ikasten hasi banintzen literaturarengatik izan baitzen. Baina hasi nintzen Chomsky izeneko pentsalari baten idatziak irakurtzen, eta esaten zituen gauzek txunditu egiten ninduten. Adibidez, hizkuntza gure gogoaren jarduera dela; gaur egun begi-bistakoa iruditzen zaigu, baina orduan ez zegoen ikuspegi hori. Ni, ordea, benetan txunditu ninduen baieztapen horrek, eta, horren ondorioz, hizkuntzalaritzarantz lerratzen hasi nintzen.

Nolabait, sekretuan egin nintzen hizkuntzalari; alde batetik, karrerako gaiak ikasten nituen fakultatean, eta, bestetik, interesatzen zitzaizkidanak irakurtzen nituen nire kasa. Azkenean, karreraren amaieran, Pello Salaburu etorri zen MITetik, eta harrিতa geratu zen, zenbat galde-

ra nituen ikusita. Orduan hasi ginen ideia horiek ezagutzen karreran, eta orduan sartu nintzen hizkuntzalaritzan, buru-belarri.

Beste mugari bat da egiazko konbergentzia bat gertatzen ari dela hizkuntzalarien, psikologoaren eta neurozientzialarien artean. Oraindik asko falta da, baina gertatzen ari da. Eta dagoeneko onartu da hizkuntza badela neurozientzia kognitiboaren atal bat, eta hizkuntzalaritzaren ekarpena ez dela hutsala. Ez nuke esango horrek txunditu nauenik, baina mugari bat da, eta nire ikerketabilbidean eragin du. Izan ere, Chomskyk esan zuenean hizkuntza gure garunean dagoela, hizkuntzalaritza alde batetik zihonan, eta zientzia esperimentalak, bestetik; bi galaxia desberdin ziren. Gogoan dut MITen liburuxka bat hartu nuela, eta afasiari buruzkoa zela. Haluzinatuta geratu nintzen: nik ez nekien hizkuntzarekin lotutako gaitotasunik izan zitekeenik, karreran ez ziguten halakorik aipatu ere egin. Azken urteotan, ordea, ikuspegia aldatu da, eta neurozientzialariek eta psikologoekin elkarlanean aritzen gara.

Zer iraultzaren edo aurkikuntzaren lekuko izan nahiko zenuke zure ibilbidean?

Ziurtasun osoz sentitzen dut orain imajinatzen ez ditugun gauzak ikasiko ditugula hizkuntzari buruz. Gure zain ditugu orain imajinatu ezin ditugun gauzak. Adibidez, duela 10-15 urte ez zen espero hain estua izatea kognizioaren eta gorputzaren arteko erlazioa. Ingelesez *embodied cognition* deitzen zaio, eta hizkuntzalaritza baino askoz zabalagoa bada ere, berresten ari da

lehendik hizkuntzalaritzan aurkitutako gauzak. Dena dela, adibide bat baino ez da. Beraz, zer espero dut? Bada, imajinatzen ez ditugun gauzak; nik beti espero dut hori, eta ez da txorakeria bat, hizkuntzalari egin nintzenetik orain arteko ibilbidean, pentsaezinak ziruditen gauzak egia direla ikusi baitut. ●